



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

ESKOLA eta CURRICULUMA



K2 Modulu-lanaren ikaslearen gida
Lehen Hezkuntzako Gradua. 1. maila
(2021-2022 ikasturtea)

Aurkibidea

1. IRAKASLE-TALDEA	3
2. LAN MODULARRAREN TESTUINGURUA	4
a. Edukien azalpen laburra	4
b. Proiektuari dedikazioa	4
c. Lan taldeen osaera.....	4
d. Kasua.....	4
3. IKASKUNTZA-HELBURUAK.....	5
4. MODULUKO GAITASUNAK	5
5. MODULU LANAREN EDUKIAK: IKASGAIEN GAI-ZERRENDA	6
6. EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIPZIOA	7
a. Lan-dokumentuaren sortzea	7
b. Lanaren egitura eta entregatzeko epemuga	7
7. KRONOGRAMA.....	8
a. Bisitatu beharreko eskolaz kanpoko baliabidea	8
b. Kanpoko baliabidearen analisia: irakasgai bakoitzaren ikuspegitik orientazioak.....	9
8. EBALUAZIOA ETA ERRUBRIKA	11
a. Etengabeko ebaluazioa.....	11
b. Amaierako ebaluazioa	12
I. ERANSKINA. BILERAREN AKTARAKO EREDUA.	14
II. ERANSKINA. KANPOKO BALIABIDEEN ZERRENDA.	15
III. ERANSKINA. HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA ETA DIDAKTIKA OROKORRAREN ZEHAZTAPEN TAULAK.....	18
IV. ERANSKINA. TALDEAREN FITXA INFORMATIBOA.	24
V. ERANSKINA. EBALUAZIO ERRUBRIKA.	25
VI. ERANSKINA: TALDEAREN 1. AUTOEBALUAZIOA	29
VII. ERANSKINA: TALDEAREN 2. AUTOEBALUAZIOA	30

Zentroa: Gasteizko Irakasle-Eskola (Hezkuntza eta Kirol Fakultatea)
Moduluaren izena: <i>Eskola eta Curriculuma</i>
Maila: 1. Lauhilabetea: 2.

1. IRAKASLE-TALDEA

Ikasgaia	Irakaslea	Helbide elektronikoa	Bulegoa	Taldea
Naturaren Zientziak LH-ko ikasgelan I	Arantza Rico	arantza.rico@ehu.eus	B.7	46 + 46H
	Amaia Albizua	amaia.albizua@ehu.eus	B.9	46
	Igone Palacios	igone.palacios@ehu.eus	B.12	47
Gizarte-Zientziak eta bere Didaktika I	Aritza Saenz del Castillo	aritza.saenzdelcastillo@ehu.eus	1.2	47
	Joseba Iñaki Arregi	josebainaki.arregi@ehu.eus		46+46H
Hezkuntzaren Psikologia	Martin Sainz de la Maza	martin.sainzdelamaza@ehu.eus	2.13	47
	Aitor Xabier Ruiz de Luzuriaga	aitorxabier.ruizdeluzuriaga@ehu.eus	2.13	46
	Ainara Duque	ainara.duke@ehu.eus	PDI 03	46H
Didaktika Orokorra	Oihane Fernández	oihane.fernandezl@ehu.eus	B.12	47
	Amaia Septien	amaia.septien@ehu.eus	PDI 01	46H
	Maitane Basasoro	maitane.basasoro@ehu.eus	PDI02	46
Matematika eta bere Didaktika I	Uzuri Albizu	uzuri.albizu@ehu.eus	2.2	46/47/46H
	Javi Gasco	javier.gasco@ehu.eus	2.3	46
	Egoitz Salsamendi	egoitz.salsamendi@ehu.eus	B08	46

***Belzutako irakasgaietan modulu lana giltza da**

OHAR GARRANTZITSUA: irakasleen posta elektronikoak ez dira INOLAZ ERE erabili behar tutoretza birtual bat lortzeko. Horretarako irakasleen tutoretza orduak jarri dira (GAUREn kontsulta ditzakezue).

2. LAN MODULARRAREN TESTUINGURUA

Lehen Hezkuntzako “Eskola eta Curriculumuma” delako diziplinarteko lan honek 2. lauhilabeteko 5 irakasgai hartzen ditu bere gain eta bere balioa, guztira, 5 kreditukoa da (1. Irudia).

Naturaren Zientziak LH-ko ikasgelan I (6kr.)

Gizarte-Zientziak eta bere Didaktika I (6 kr.)

Hezkuntzaren Psikologia (6 kr.)

Didaktika orokorra (6 kr.)

Matematika eta bere Didaktika I (6 kr.)

1. Irudia. “Eskola eta Curriculumuma” modulua osatzen duten irakasgaiak eta kreditu kopurua.

a. **Edukien azalpen laburra**

Moduluko diziplinarteko lanak harremanetan jarriko ditu irakasgai bakoitzean alfabetatzeko diren edukiak, etapako ikaskuntzako oinarrizko printzipioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkuntza curriculum arauemailea, horiek guztiak lotuz lehen hezkuntzako material eta baliabide didaktikoetan dauden ikaskuntza proposamenekin.

b. **Proiektuari dedikazioa**

Lanari emandako arduraldiari dagokionez, irakasgai bakoitzaren 6 kredituetatik, 1 moduluari emango zaio. Horri aurrez aurreko 10 eskola-ordu eta ikasgelaz kanpoko 15 ordu dagozkio, moduluko irakasgai bakoitzeko; ikasle bakoitzak, guztira, aurrez aurreko 50 ordu eta ikasgelaz kanpoko 75 ordu egin behar lituzke. Proporzioan, irakasgaiak, gehienez, bi puntuko kalifikazioa emango diote ebaluazioan moduluko lanari.

c. **Lan taldeen osaera**

Lan-talde idealak 4 pertsonakoak izango dira eta osaera ikasleek adostu beharko dute. Alde horretatik, lana egoki egiteko mesedegarri izan daitezkeen irizpide batzuk kontuan izatea aholkatzen dugu: alde batetik, eraginkortasun maila egoki bat lortzea aurreikustea, lagungarri izan daiteke lehendik giza-harremana edo lan-harremana egotea, eta baita taldeko kideak elkarrengandik hurbil bititza ere; kontuan hartu beharreko beste irizpide bat, jakina, laneko gaiarekiko dagoen interesak sor dezakeen kidetasuna da.

d. **Kasua**

Derrigorrezko hezkuntzak dauzkan curriculum ikuspegi berria kontuan hartuta, zeina oinarrizko kompetentzietan oinarriturik dagoen, Mendilagun zentroko irakasle taldeak baliabide didaktiko berriak biltzea erabaki du, etapa bakoitzerako jarrita dauden eduki eta kompetentziak garatu ahal izateko.

Erabakiak hartu aurretik, baliabide didaktikoen inguruko informazioa biltzea erabaki dute, Hezkuntza

Sailetik, administrazioko erakundeetatik, organismoetatik eta abarretatik haien esku jarri dizkietenak, Lehen Hezkuntzako ezagutza eremu desberdinak lantzeko asmoz.

Horretarako, curriculumaren helburuak, edukiak eta konpetentziak aztertuko dituzte modu kritikoan baliabide horietan, etaparako egokitasuna balioetsiz, eta aipatuz, halaber, alde onak eta hobe daitezkeenak.

Zuen eginbeharrak, Mendilagun ikastetxeko irakasle taldearen kide berri bezala baliabide didaktiko zehatza aztertu eta baloratzea izango da: kanpo baliabideak (informazio puntuak, interpretazio zentroak, museoak...).

Galdera eragilea

Baliabide didaktiko egokiak aurki ditzakegu gure ikaslegoarentzat?

Galdera gidatzaileak

Hautatutako baliabide didaktikoen bitartez, zein helburu, eduki eta gaitasunak landu daitezke? Oinarrizko gaitasun horiek ikasteko zein modu desberdinetan erabiltzen dira testuliburuak eta kanpo baliabidea? Zein alde on eta zein hobetu beharreko aspektu dago baliabide bakoitzean?

3. IKASKUNTZA-HELBURUAK

- Lehen Hezkuntzan landu beharreko etapako edukiak, gaitasunak eta helburuak, baita oinarrizko gaitasunak lortzeko ere baliagarri diren baliabideak ezagutu eta alderatzea.
- Hautatutako lehen hezkuntzako zikloaren ikaskuntzaren oinarrizko printzipio batzuk ulertu eta identifikatzea.
- Informazioa bilatu eta kudeatzeko teknikak erabiltzea.
- Bakarka eta taldean etapa honetako curriculumeko arlo batzuen oinarrizko printzipioak ezagutu eta aztertzea.

4. MODULUKO GAITASUNAK

M1. 6-12 urte bitarteko etapan (Lehen Hezkuntzan) ikaskuntza-irakaskuntza oinarrizko printzipioak aztertu eta ulertu.

M2. Taldeka idatzizko txosten bat egitea Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoen azterketa eta balorazioari buruzkoa, informazioaren teknologiak eta komunikazioaren teknologiak erabiliz, baita hizkuntza eta komunikazio konpetentziak erabiliz ere.

M3. Ikasle talde batean modu aktiboan parte hartzea, zereginak eta erantzukizunak bere gain hartuz, modu kooperatibo, autonomo eta eraginkorrean lan egiten ikasteko.

M4. Gaurko hezkuntza sisteman Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoak aztertu, curriculumeko arlo bakoitzaren eduki, helburu eta konpetentzia, halaber jasota dauden etapako helburuak eta oinarrizko gaitasunak, baliabide didaktikoak aukeratzeko orduan gaitasun kritiko bat garatzeko.

Lauhilabetekoa amaitzean, ikasleek Lehen Hezkuntzako material eta baliabide didaktikoak aztertzen jakin beharko dute, irakasgaien estandarretara egokitzen diren eta curriculumeko araudietara egokitzen diren

neurtu ahal izateko, eta, hala dagokionean, beste aukera batzuk proposatzeko.

Ikasleek hobeto ezagutuko dituzte etapa eta curriculumaren oinarrian dauden oinarri psikopedagogikoak. Halaber, gaitasunak garatuta edukiko dituzte, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan agertzen diren eragileak ulertu ahal izateko. Oinarrizko gaiei buruzko ikuspegi zabalago eta bateratzaileago bat eskuratzear gain, didaktika espezifikoak ezagutzen hasiko dira, eta ibilbide bat egina izango dute curriculum arautzaileen zehar, eta, hala, beren lanbideaz hobeto jabetu ahal izango dira.

Hainbat baliabideren artean, bakoitzaren egokitasuna balioesten eta argudiatzen jakingo dute, hautatutako zikloan jakintza nola sortzen den ikusirik, curriculumeko gomendio arautzaileak nolakoak diren, eta irakasgai espezifikoaren estandarretarako aztertutako baliabide didaktikoek proposatzen dituzten eduki eta gaitasunak egokiak diren aztertuz. Lan horrek honako hau eskatzen du: baliabideei buruzko azterketa, alderaketa eta hausnarketa.

5. MODULU LANAREN EDUKIAK: IKASGAIEN GAI-ZERRENDA

Didaktika orokorra

- Irakaskuntzaren eta curriculumaren teoriak. Curriculuma, oinarrizko kontzeptuak. Curriculum-politika: curriculum ofiziala. Curriculumaren oinarriak eta zehaztasun mailak.
- Curriculuma diseinatu eta garatzea. Planifikazioa prozesu gisa eta produktu gisa. Curriculuma diseinatu eta garatzeari buruzko ikuspuntuak.

Hezkuntzaren Psikologia

- Ikaskuntzaren eta ezagueraren eraikuntzaren teoriak.
- Eskolako motibazioa eta ikaskuntza.

Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I

- Gertaera soziokulturalaren alderdiak (inguruari erantzuna, ekonomikoa, erlijiosoa, ideologikoa, politikoa, artistikoa...) ezagutzea. Historian zehar aldatu diren fenomenoak baitira, maila globalean eta bertakoan.
- Herritarren hezkuntza demokratikoa eta pentsamendu sozial kritikoa lantzea, elkarbizitzarako tresna izan daitezen. Euskal Herriaren gaur egungo egoera aztertzea.

Naturaren Zientziak Lehen Hizkuntzako Ikasgelan I

- Lehen Hezkuntzako curriculuma Naturaren Zientzietan.
- Lehen Hezkuntzako Naturaren Zientzien arloko materialen eta baliabide didaktikoen azterketa kritikoa.
- Jasangarritasunerako hezkuntza.

Matematika eta bere didaktika I

- Lehen Hezkuntzako curriculuma matematikan.
- Lehen Hezkuntzako bigarren ziklorako diseinatutako kanpo-baliabide didaktikoen azterketa kritikoa eta konstruktiboa: matematikaren presentzia eta presentzia horren nolakotasuna, edo presentzia eza.

6. EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIPZIOA

a. Lan-dokumentuaren sortzea

Behin osaturik, lan-talde bakoitzak lanerako dokumentu bat sortuko du (Word bat, adibidez). Dokumentu hori taldearen kide guztien artean partekatuko da euskarri digital baten bitartez (adibidez, Google Drive) eta horren gainean lan egingo dute modu interaktibo baten bidez.

Otsailaren 2rako talde bakoitzak e-mail-aren bitartez informazio hau bidaliko du (IV. eranskina) posta elektronikoen bitartez honako helbide honetara (k2lhgasteiz@gmail.com) (**asuntoan eta atxikitutako dokumentuan hurrengo informazio identifikatiboa jasoz: Ikas taldea -46,47,46H-; Taldearen izena**) eta egelara igo baita ere:

- Lan taldea osatzen duten ikasleen izen eta abizenak
- Taldearen izena eta taldearen helbide elektronikoa (Gmail)
- Taldekideen izen-abizenak eta helbide elektronikoak eta bakoitzaren argazkia
- Taldekide bakoitzaren eginkizuna: informatikaria, koordinatzailea, idazkaria, bozeramailea...
- Funtzionatzeko arauak
- Biltzeko ordua, eguna eta tokia
- Aukeratutako kanpoko baliabidea (lehentasunaren arabera hiru aukera)

b. Lanaren egitura eta entregatzeko epemuga

Amaierako lanak jarraian proposatzen den egitura izango du. Bere luzerak ez ditu 30 orri gaindituko eta 2020ko **Maiatzaren 9rako** entregatuko da. Horretarako lan-talde bakoitzak pdf formatuan eta behar den moduan maketaturik helbide honetara (k2lhgasteiz@gmail.com) bidaliko du (**asuntoan eta atxikitutako dokumentuan hurrengo informazio identifikatiboa jasoz: Ikas taldea -46,47,46H-; Taldearen izena; Deialdia**) eta egelara igo baita ere.

1. SARRERA

Lanaren justifikazioa irakaslearen ikuspegitik (Eskolaz kanpoko baliabideek duten garrantzia Lehen Hezkuntzako curriculumaren garapenerako) eta lanaren helburu zehatzak.

2. KANPOKO BALIABIDEAREN DESKRIPZIOA

Baliabidearen deskribapena, haren hezkuntza-eskaintzarena eta egindako jardueren deskribapena eta hauek zehar-konpetentziak garatzeko egiten duten ekarpena.

3. IRAKASGAI BAKOITZAREN IKUSPEGITIK ANALISIA

Gida honetan bertan proposatutako gidoia jarraituko da.

4. BALORAZIO OROKORRA ETA HOBEKUNTZARAKO ALDERDIAK

Curriculumuma eta ezagutza-arloen estandarrekiko egokitasuna, baliabideen inplikazio psikopedagogikoak, alderdi positiboak eta hobekuntzarako proposamenak...

5. ERREFERENTZIAK

6. ERANSKINAK

Taldeak eginiko batzar bakoitzeko sortuko duen akta sartu amaieran, I. Eranskina jarraituz. Bestelako eranskinak.

7. KRONOGRAMA

Lan kooperatibo honen garapenak hurrengo kronograma hau jarraituko du. Bitarteko entregarako dokumentua zein amaierakoa Moduluko irakasle guztien helbide elektronikora bidaliko dio talde bakoitzak pdf formatuan.

Ataza	Data edo epemuga
Aurkezpena	Urtarrilak 24
Gida irakurri eta talde fitxa igo	Otsailak 2
Tutoreen esleipena	Otsailak 11
Eskolaz kanpoko baliabidera deitu	Tutorearekin adostu
Eskolaz kanpoko baliabidera bisita	Martxoak 11 baino lehenago
Bitarteko entrega (1. eta 2. atalak osorik eta 3. atala garatzen hasia)	Martxoak 28 (tutoreei)
Feedback-a	Apirilak 4-11
Tutorizazioa	Kurtsoan zehar, irakasgai bakoitzean
Behin betiko entregatze-epea	Maiatzak 9

a. Bisitatu beharreko eskolaz kanpoko baliabidea

Eranskinean zerrendatuta ageri dira Elkargo Autonomiko honetan Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako eskuragarri dauden kanpoko baliabideak. Ohiko egoeran, talde bakoitzak horietako bat aukeratu beharko luke, eskola batekin batera bisita egin, eta bertan landutako gaitasun eta edukiak aztertu. Pandemia egoera dela eta, planteamendu hori aldatu egin behar izan dugu. Hona hemen egokitzapenen nondik norakoak:

- Lehenengo lau hilabeteen *Irakasle Funtzioa* ikasgairako elkarrizketatutako irakaslearekin kontaktatuko duzue. Irakasle horrek bere ikasleekin bisitatutako kanpo-baliabideak lehenetsiko dituzue aukeraketa egiterakoan, lanaren koherentzia mantentze aldera.
- Kanpo-baliabidearekin hasierako kontaktua zuen tutoreekin adostuko duzue.
- Kanpo-baliabidera bisita taldekide guztiek egin beharko duzue.
- Psikologiari eta Didaktika Orokorrari dagokien atala egiteko, arestian aipatutako irakasleari elkarrizketa bat egin beharko diozue (zehaztapenak aurrerago).

Galdera hauek aukeratutako baliabidearen deskripzioa gidatu dezakete:

- Zer motatako baliabidea da?
- Zer proposamen didaktiko egiten ditu?
- Zein da eskaintza didaktiko horren zentzua edo helmuga? Zein da baliabide horrek duen inpaktua edo eragina: Kanpo baliabidea urtero bisitatzen duten ikastetxe kopurua?

- Zein da baliabidearen kudeatzaile-hezitzaileek egiten duten balorazioa?
- Nola bideratzen da eskaintza Lehen Hezkuntzako zentroei?
- Zein da ikastetxeek egiten ohi duten balorazioa bisitaren ostean?
- Kanpoko baliabideak egiten duen eskaintzak ziklo, ordutegi edota ibilbideen egokitasunik baimentzen du?
- Behaturiko jarduera-sekuentzien deskribapen zehatza.

b. Kanpoko baliabidearen analisia: irakasgai bakoitzaren ikuspegitik orientazioak

Lanaren helburua zera da, baloratzea kanpoko baliabideek nola laguntzen duten oinarriko eta berezko gaitasunak zein irakasgai bakoitzaren edukiak garatzen. Horretarako, baloratu beharko da garatzen diren jarduerak egokiak ote diren irakasgaien eta ziklo konkretuen ezaugarrien ikuspegietatik. Idatzizko txosten honek azterketaren kontu adierazgarrienak batuko ditu.

Didaktika Orokorra eta Hezkuntzaren Psikologia

Lan honetan kanpoko baliabidearen eta ikastetxearen azterketa Didaktika Orokorra eta Hezkuntzaren Psikologiaren ikuspegietatik osatu beharko da, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak azpimarratuz. Kanpoko baliabidean egiten diren jardueretan eta irakasleari egindako elkarrizketan, behaketa txantiloian oinarrituta (III. Eranskina), informazioa jasoko da. Lanean jardueren deskribapena eta analisia adibide zehatzen bitartez garatuko da.

Hau aurrera eramateko, bi izango dira aztertuko diren esparruak: lehendabizi, hezkuntza ez formaleko kanpoko baliabidea (II. Eranskina) eta, ondoren, hezkuntza formaleko ikastetxea. Honetarako, kanpoko baliabidearen bisita ikastetxe bateko ikasleekin egingo da eta, bertan, irakaslearekin kontaktatuko da bere ikastetxera joateko elkarrizketa egitera.

Naturaren zientziak LH-ko ikasgelan I

Euskal Elkargo Autonomikoaren Lehen Hezkuntzako curriculumak Naturaren Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I ikasgaien gaitasun espezifikoko eta edukiak barneratzen ditu “Naturaren Zientziak” delako atalean ([236/2015 Dekretua](#)).

Irakasgai honetatik agindutako lana zera da, kanpoko baliabideak zein ekarpen egiten dio zientziarako kompetentziari (73. orria). Horren ostean, jarduera konkretu bat aukeratu ostean, eta kontuan harturik zein ziklora bideratuta dagoen, deskribatu behar da jarduera horrek egiten duen ekarpena zikloaren ezagutza-arlo honen edukiei (190. orria).

Hurrengo galdera hauek baliagarriak izan daitezke analisi hori burutzeko:

- Zientziarako gaitasunaren zein atal jorratzen ditu baliabideak?
- Aukeratutako kanpoko baliabideak zeintzuk eduki espezifikokoak jorratzen ditu Naturaren Zientzien arloan?
- Jasangarritasunerako hezkuntzaren ikuspegitik aukeratutako jarduerak zein ekarpen egiten du?
- Osasunaren hezkuntzari dagokionez, ze nolako ekarpena egiten du baliabideak edo aukeratutako jarduerak?
- Zein hobekuntza edo iradokizun proposatuko zenituzkete aukeratutako jarduera eta kanpoko baliabideentzat?

Gizarte zientziak eta bere didaktika I

Euskal Elkargo Autonomikoaren Lehen Hezkuntzako curriculumak Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I irakasgaien gaitasun espezifiko eta edukiak batzen ditu “Konpetentzia zibiko eta soziala” delako atalean (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina HEZIBERRI 2020).

Irakasgai honetan egin beharreko lana zera da, kanpoko baliabideak konpetentzia zibiko eta soziala garatzeko ematen dituen aukerak aztertzea. Horretarako HEZIBERRIko beste eduki multzoekin batera bereziki erreparatuko zaio hirugarren (Gizartean Bizitzea) zein laugarren (Denboraren arrastoari) multzoei. Azken multzo hauetan GGZZk berezia duten gizarte aldaketari, bere zergati eta ondorioei, eta gizartean inportanteak diren egitura zein instituzioei eskainiko zaie arreta. Horren ostean, jarduera konkretu bat aukeratu, eta kontuan harturik zein ziklori bideratuta dagoen, deskribatu behar da jarduera horrek egiten duen ekarpena zikloaren helburu eta ezagutza-arlo honen edukiei, beti ere era egokian justifikatuz.

Hurrengo galdera hauek baliagarriak izan daitezke analisi hori burutzeko:

- Konpetentzia zibiko eta sozialaren barnean aukeratutako kanpoko baliabideak Gizarte Zientziak eta Balio sozial eta Zibikoko arloko zeintzuk helburu jorratzen ditu?
- Jarduerak zein ekarpen egiten die arlo hauen eduki espezifikoiei?
- Garapen Jasangarrirako hezkuntzaren ikuspegitik aukeratutako jarduerak zein ekarpen egiten du?
- Zein hobekuntza edo iradokizun proposatuko zenituzkete aukeratutako jarduera eta kanpoko baliabideentzat?. Atal honetan baliabideak ez badu modu esplizitu eta zuzenean gizarte zientzien edukia jorratu, aprobetxatu eta zuen proposamena egin hutsune hau zuzentzeko.

Matematika eta bere didaktika I

Geroz eta gehiago dira diziplinartekotasuna Lehen Hezkuntzako ikasgeletara eramateaz diharduten ahotsak; izan ere, hainbat hezkuntza proiekturen oinarritzko helburuetako bat bilakatu da.

Hala ere, oraindik bide luzea dugu aurretik, eta bide honetan egin beharreko eraldaketak ez dira edonolakoak. Izan ere, gertatu izan da diziplinarteko proiektuetan irakasgairan bat tartekatze arazoak izatea. Hori izaten da maiz matematikaren kasua; zergatiak hainbat izan daitezke: gaia modu abstraktu batean irakasten delako, ez delako irakasgaia egunerokotasunera hurbiltzeko ahalegin errealik egiten...

Hori guztia dela eta, etorkizuneko irakasle izango zareten heinean interesgarria iruditzen zaigu gaiaren inguruan hausnartu eta proposamen egoki bat prestatzeko ahaleginak egitea.

- Ba al dago eduki matematikoen lanketa espezifikorik?
- Egonez gero, zein eduki espezifiko lantzen ditu jarduerak? Zer ekarpen egiten die gaitasun espezifikoiei? Zer ekarpen egiten diote oinarritzko gaitasunen garapenari?
- Ez baldin badago, irakasleak jabetu al dira gabezia horretaz? Egiten al dute kanpo-baliabide horrekiko lanketa matematikorik? Zertan datza lanketa horrek?
- Zer proposatuko zenukete zuek irakasgaia kanpo-baliabidearekin uztartzeko?

Azken galdera horri erantzuna emateko, sekuentzia didaktiko bat sortu beharko duzue, kanpo-baliabidea eduki matematiko baten lanketarekin lotuko duena. Horretarako honako pausu hauek eman beharko dituzue:

- Erabaki behar duzue zein eduki landuko duzuen sekuentzia didaktikoan. Horretarako, honako

galdera hau egingo diozue zuen buruari: zein eduki da kanpo-baliabidera bisitan bititakoekin uztargarriena?

- Edukiak finkatutakoan, hauek nola landu pentsatu beharko duzue, kanpo baliabidea bisitatu aurretik, bitartean, eta ostean, jarduera desberdinen bitartez. Lanketa hori lotuta egon beharko da kanpo-baliabidera bisitarekin.

8. EBALUAZIOA ETA ERRUBRIKA

a. Etengabeko ebaluazioa

Etengabeko ebaluazioa egin ahal izateko beharrezko izango da:

- Gutxienez 3 irakasgaietan matrikulatua egotea.
- Matrikulatutako irakasgai guztietan etengabeko ebaluazioa egitea.

Gida honetan zehaztutako kronograma izango da ikasleen erreferentzia. Ebaluazio prozesua bi fasetan banatuko da:

- 1. Fasea:** Ikasle-taldeek lanaren 1. entrega egingo dute kronograman adierazitako datan eta gida honetan adierazitako prozedura erabiliz. Dokumentu horrez gain, 6. eranskinean adierazten den taldearen 1. auto-ebaluazio fitxa bete eta entregatu beharko dute. Irakasle-tutoreak feedbacka emateko eguna eta ordua adostuko du ikasle-taldeekin.
- 2. Fasea:** Ikasle-taldeek amaierako entrega egingo dute kronograman adierazitako datan eta gida honetan adierazitako prozedura erabiliz. Dokumentu horrez gain, 7. eranskinean adierazten den taldearen 2. auto-ebaluazio fitxa eta bilera guztien aktak entregatu beharko dituzte.

Modulu-lanaren kalifikazioak ez du zertan berdina izan taldeko ikasle guztientzat. Ikasle bakoitzaren jarreraren eta lanari egindako ekarpenaren arabera izango da, eta hau amaierako kalifikazioan islatuta geratuko da.

Modulu-lanaren kalifikazioa irakasgai bakoitzeko kalifikazioaren %20 izango da. Kalifikazio hau moduluko irakasle guztiek adostutakoa izango da eta irakasgai bakoitzeko ebaluazioari gehituko zaio, (baldin eta irakasgaia gainditu bada). Lana gainditu bada eta irakasgaia ez, irakasgaia gainditu arte gordeko da lanaren nota.

Irakasgai batzuetan modulu-lana gainditzea ezinbestekoa da irakasgaia gainditzeko, eta beste batzuetan ez. Modulu-lana gainditzea derrigorrezkoa ez den ikasgai horietan (Matematikaren Didaktika I eta Gizarten Zientzien Didaktika I), lanaren kalifikazioa (supentsoa den kasuetan ere bai) irakasgaiaren gainontzeko kalifikazioari batuko da, eta gaindituta ematekotan (10etik 5 edo gehiago), horixe izango da irakasgai horren azken kalifikazioa.

Modulu lana gainditzea derrigorrezkoa den gainontzeko irakasgaietan, lehen deialdian gainditzeko ez duten ikasleek hurrengo deialdian gainditu beharko dute, behar diren hobekuntzak eta zuzenketak txertatuz.

Lanak ebaluazio-errubrikaren arabera ebaluatuko dira (V. Eranskina). Alderdi hauek hartuko dira kontutan:

- Irakaskuntza-ikaskuntzako oinarriko printzipioen analisisa eta ulermena.
- Ezagutza-arlo bakoitzaren eduki espezifikoak.
- Txostenaren egitura eta alderdi formalak*.
- Talde-dinamika eta ikasle-taldearen parte hartze aktiboa.

*Ikasleek moduluaren prozesuan zehar landutako APA arauak ezagutu eta erabili beharko dituzte. Plagioa dagoela detektatuz gero, txostena baztertuko da, eta modulu lana ez da gaindituko.

Euskararen erabilera zuzena egin beharko da. Gehienez ere 10 akats potolo onartuko dira. Hortik gorako huts egiteak nahikoa izango da K2 modulu lana ez-gaindituztat emateko. Akats potolotzat joko dira ergatiboan, konmuztaduran, deklinabidean zein aditzean aurki daitezkeen oinarritzko erroreak.

Akatsak sahiesteko, gogoratu Google Drive plataformak zuzentzaile ortografikoa erabiltzeko aukera ematen duela. “Xuxen” euskarazko zuzentzaile ortografiko eta gramatikala instalatzea ere gomendatzen da (<http://xuxen.eus/eu/home>), web nabigatzailean edota ohiko testu-prozesatzailean instalatuz (LibreOffice edo Microsoft Word, adibidez).

b. Amaierako ebaluazioa

Ikasle hauek irakasgai guztiak biltzen dituen azterketa idatzi baten edo batzuen bidez ebaluatuko dira (moduluaren %100).

Lan modularrari buruzko proba irakasgai bakoitzeko azken kalifikazioaren %20 izango da.

1. ERREFERENTZIAK

- Barba, P. V. (2009). ¿Para qué vienen? Expectativas de los docentes en las visitas escolares al museo. *Enseñanza de las Ciencias: Revista de Investigación y Experiencias Didácticas*, (Extra), 520-524. https://ddd.uab.cat/pub/edlc/edlc_a2009nEXTRA/edlc_a2009nExtrap520.pdf
- Blanco, A. eta López-Facal, R. (2016). Paisaje y patrimonio en la educación primaria. Un proyecto interdisciplinar alrededor de una salida escolar. A. M. Hernández-Carretero et al.-en (Koord.), *Una enseñanza de las ciencias sociales para el futuro: Recursos para trabajar la invisibilidad de personas, lugares y temáticas* (109-117 orr.). Extremadurako Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Bressan, A. (2005). Los principios de la Educación Matemática Realista. In H. Alagia, A. Bressan, eta P. Sadovsky (Edk.), *Reflexiones teóricas para la educación matemática* (69-96 orr.). Libros del Zorzal.
- Canals, R. eta González, N. (2011). El currículo de Conocimiento del Medio Social y Cultural, y la formación de competencias. A. Santisteban eta J. Pagès-en (Edk.), *Didáctica del Conocimiento del Medio Social y Cultural en la Educación Primaria* (41-62 orr.). Síntesis.
- Domínguez-Almansa, A. eta López Facal, R. (2014). Patrimonio, paisaje y educación: formación inicial del profesorado y educación cívica del alumnado de primaria. *Clio. History and History Teaching*, 40.
- Elcano-Sanchez, A. (2014). Ingurumen baliabide didaktikoak Nafarroan eta haien interesa Ingurune Naturala ezagutzeko eskolan. <http://academica-e.navarra.es/bitstream/handle/2454/14312/TFG14-Gpri-ELCANO-67684.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Eusko Jaurlaritza (2015)a. 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf>
- Eusko Jaurlaritza (2015)b. Oinarrizko hezkuntzako curriculuma. (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea). http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/O_H_curriculum_oso.pdf
- Feliu, M. eta Hernández, M. (2015). El paisaje en la didáctica de las Ciencias Sociales. *Iber*, 81, 9-14.
- Guisasola J. (2013). Luces y sombras en la enseñanza-aprendizaje de las ciencias fuera de la Escuela. Guisasola 2013. *Enseñanza de las ciencias*.
- Guisasola, J., Azcona, R., Etxaniz, M., Mujika, E., eta Morentin, M. (2005). Diseño de estrategias centradas en el aprendizaje para las visitas escolares a los museos de Ciencias. *Revista Eureka sobre Enseñanza y Divulgación de las Ciencias*, 2(1). <http://revistas.uca.es/index.php/eureka/article/view/3931>
- Guisasola, J., eta Morentin, M. (2007). ¿Qué papel tienen las visitas escolares a los museos de Ciencias en el aprendizaje de las Ciencias? Una revisión de las investigaciones. *Enseñanza de las Ciencias*, 25(3), 401-414. <http://www.raco.cat/index.php/ensenanza/article/viewFile/87935/216425>
- Rieckmann, M. (2017). *Educación para los Objetivos de Desarrollo Sostenible Objetivos de aprendizaje*. Organización de las Naciones Unidas para la Educación la Ciencia y la Cultura (UNESCO), París, Francia, 68. or. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000252423>

I. ERANSKINA. Bileraren aktarako eredua.

Data: Bilera zbkia.: Tokia:	Hasiera-ordua: Amaiera-ordua:
Partehartzaileak:	
Gai-ordena:	
Hartutako erabakiak:	
Egokitutako atazak:	
Taldekide guztien parte hartze orekatua bermatzeari begira hartutako neurriak, hala badagokio:	
Hurrengo bilerarako deialdia:	

II. ERANSKINA. Kanpoko baliabideen zerrenda.

Araba

Valderejoko Parke Naturala	http://www.alavaturismo.com/es/ficha.php?id=178
Gorbeako Parke Naturala	http://www.alava.net/cs/Satellite?c=Page&cid=1193045600701&language=es_ES&pagename=DiputacionAlava%2FPage%2FDPA_listado
Valle Salado de Añana	http://www.vallesalado.com/VALLE-SALADO-HOME
Izkiko Parke Naturala	http://www.izkinatural.com/es/actividades
Ataria (Salburua)	https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=7b0b7a9c_1223ed9c1ac_7ffc&mostrarBanners=ataria
BIBAT. Arkeologia museoa	http://www.alava.net/cs/Satellite?c=DPA_Cultura_FA&cid=1223982962950&pageid=1193045487374&pagename=DiputacionAlava%2FDPA_Cultura_FA%2FDPA_museo
Eusko Legebiltzarra	http://www.legebiltzarra.eus/portal/web/eusko-legebiltzarra/conoce-el-parlamento/como-llegar
Santa Maria Katedrala	http://www.catedralvitoria.eus/index.php
Medixurko parke ornitologikoa	http://www.alavaturismo.eus/index.php/eu/natura/birding-zentroak/mendixurko-parke-ornitologikoa

Bizkaia

Urkiolako Parke Naturala	http://www.urkiola.net/Euskera/Actividades/tokialai_introduccion.php
Gorbeako Parke Naturala	http://www.gorbeialdea.com/es/turismo/descubre-gorbeialdea/cultura/museos/parketxe-de-areatza.html
Armañon Parke Naturala	http://www.bizkaia.net/home2/archivos/DPTO9/Temas/Pdf/Patrimonio_Natural/ACTIVIDADES/PROGRAMA%20ARMANON%20def.pdf?idioma=EU
Biodibertsitate Zentrua	http://www.torremadariaga.net/Paginas/Ficha.aspx?IdMenu=1730F1C7-A919-4A64-9416-DE856881473E&Idioma=es-ES
Bird Center	http://www.birdcenter.org/
Itsas Museoa	http://www.museomaritimobilbao.org/mmr/Web/home/index.asp?cod=23bde694-9b2f-45fb-a73d-36f047b06e13
Peñas Negras	http://www.ingurumena.ejv.euskadi.net/r49-8752/es/contenidos/informacion/pnegras/es_hezk/presentacion_pnegras.htm

	I
El Pobal (burdinola)	http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=3022
Arrantzaleen museoa	http://www.bizkaia.net/Kultura/Museos/pescador/index.asp?Tem_Codigo=3021&idioma=EU&dpto_biz=4&codpath_biz=4 296 3021
Euskal Herria Museoa	http://www.bizkaia.net/Kultura/Museos/euskalherria/index.asp?Tem_Codigo=3020

Gipuzkoa

Arrikruz-Oñatiko Kobak	http://www.oñati.eus/es/turismo/arrikruz-las-cuevas-de-onati
Aikur Erle-museoa	http://www.aikur.com/
Aquarium Donostia	http://aquariumss.com/
Aitzkorri-Aratz PN	http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1279296728 http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1306139315
Aralar Parke Naturala	http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1261656420
Pagoeta Parke Naturala	http://www.aiapagoeta.com/index.php?option=com_content&view=article&id=20&Itemid=46&lang=es
Aiako Harriko PN	http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1257164710
Deba Zumaia Biotopoa	http://www.algorri.eu/home.php
Ardirarra Etxea – Erdi Aroko Interpretazio Zentroa (Segura)	http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1261654998
Ekainberri (Zestoa)	http://www.ekainberri.com/?lang=es
Eureka! Zientzia Museoa	http://www.eurekamuseoa.es/
Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa	http://www.idiazabalturismo.com/es/centro-interpretacion/contenidos.html
Mater museoa	http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/ofertas/index.php?id=eu&Nmuseo=1257165535
D´elikatuz Elikadura eta Gastronomía Zentroa	http://www.delikatuz.com/

Igartubeiti baserria	http://www.igartubeitibaserria.eus/
Ingurugiro etxea (Azpeitia)	http://www.ingurugiroetxea.org/es/programas-del-museo
Oiasso Erromatar Museoa	http://www.irun.org/oiasso/home.aspx?tabId=1
Txingudi ekomuseoa	http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-txingudi/es/
Zerain Paisaia Kulturala	http://www.zerain.com/
Ulia-ko interp. Zentroa	http://www.cristinaenea.org/pagina.php?queidioma=1&pg=122
Memoria historikoaren interpretazio zentroa	http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?Nmuseo=1320313869
San Telmo museoa	http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?Nmuseo=1320313869
Zerain paisaia kulturala	http://www.goieriturismo.com/eu/paisaia-kulturala-zerain

III. ERANSKINA. Hezkuntzaren Psikologia eta Didaktika Orokorren Zehaztapen taulak.

Hezkuntzaren Psikologia

1. Taula	ADIERAZLEAK		
IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA EREDUA	DIMENTSIOAK	GALDERA ERAGILEA	ADIERAZLEAK
	Ikaskuntza esanguratsua	<i>Nola ikasten dute ikasleek?</i>	<p>Aurrezagutzak aktibatzen dituzte</p> <p>Aurrezagutzak eta eduki berrien arteko loturak eratzen dituzte</p> <p>Ikaskuntza aktiboa egiten dute</p> <p>Motibatuta daude</p>
	Egitura kognitiboan aldaketak eta ikaskuntza sakona	<i>Ikasleek dituzten kontzeptuengan aldaketak ematen dira?</i>	<p>Aurrezagutzak aktibatzen dira</p> <p>Aurrezagutzak ebaluatzen dira</p> <p>Jarduerak diseinatzen dira ikaskuntza emaitzen arabera</p> <p>Jarduerak egokitzen dira taldearen ezaugarrien arabera</p> <p>Jarduerak ikasleen arreta deitzen dute eta euren interesetara moldatzen dira</p> <p>Kontzeptua/k zabaltzen da/dituzte</p> <p>Aurretiko kontzeptuen esanahia aldatzen dute</p> <p>Lotura gabeko aurretiko kontzeptuen arteko loturak ezartzen dituzte</p>

			Kontzeptu baten ezaugarriak aldatzen dituzte eta, modu koordinatuan, beste batzuen ere
		<i>Eragiten den ikaskuntza sakona da?</i>	<p>Arrazoitze denbora uzten da</p> <p>Pentsamendu kritikoa eragiten da</p> <p>Sorkuntzarako lekua dago</p> <p>Ikaskuntzak transferitzeko aukera dago</p> <p>Praktika eta automatizazioa: errepikapenak egiten dira</p> <p>Ebokazioa praktikatzan da</p>
	Irakaskuntza ereduak	Irakaskuntza-markoa konstruktibista da? Zer egiten dute monitoreek?	<p>Klase expositiboa: azalpen kontzeptualak ematen dira</p> <p>Partehartzea gidatzen da (Vigotsky)</p> <p>Indagazio gidatua (Ausubel): arrazoiketa deduktiboa edota induktiboa eragiten da</p> <p>Deskubrimenduaren bitarteko ikaskuntza (Bruner): problemen ebazpena egiten da</p>

Didaktika Orokorra

TAULA 1. Ezagutza mota

	DIMENTSIOAK	GALDERA ERAGILEA	ADIERAZLEAK
EZAGUTZA MOTA	Ezagutza Curricularra	<i>Zer ikasi du? Ezagutza Deklaratiboa.</i>	Gertaerak, kontzeptuak edo printzipioak
		<i>Zer egiten ikasi du? Prozedurazko Ezagutza.</i>	Prozedimenduak, estrategiak, teknikak, abildadeak, metodoak, etab.
		<i>Zer izaten ikasi du? Jarrerazko Ezagutza.</i>	Jarrerak, baloreak, moralari loturiko ikaskuntzak, etab.

TAULA 2. Metodologia	DIMENTSIOAK	GALDERA ERAGILEA	ADIERAZLEAK
METODOLOGIA	Jarduerak	<i>Nolako jarduerak proposatzen dira?</i>	Bideratuak / Finkoak / Kanpotik bultzaturikoak
			Irekiak / Aldakorrak / Sozialki definituak
			Banakoak
			Taldekoak
			Prozesatu beharrekoak
			Pasiboki hartu beharrekoak
	Espazioaren Antolakuntza	<i>Nola antolatzen da espazioa?</i>	Txokoak
			Interes guneak
			Jolas librea
			Tailerrak
	Denboraren Antolakuntza	Nola antolatzen da denbora?	Egitura itxia eta zurruna
			Erdi-egituratua
			Egitura malgua eta moldakorra
	Gelakideen Antolakuntza	<i>Nola antolatzen dira gelako kide guztiak?</i>	Taldeka [txikian, handian, etab.]
			Banaka
			Zirkulazio askea
			Egonkorra
	Baliabide Materialak	<i>Zer baliabide materialak erabiltzen dira?</i>	Eraikuntzako materiala
			Material sinboliko- matematikoa
			Material audiobisuala
Material plastikoa			

TAULA 3. Ebaluazioa	DIMENTSIONAK	GALDERA ERAGILEA	ADIERAZLEAK
EBALUAZIOA	Instrumentuak	<i>Zeintzuk dira erabiltzen diren ebaluazio instrumentuak?</i>	Erregistro anekdotikoak
			Behaketa
			Erregistro taula
	Irizpideak	<i>Zeintzuk dira erabiltzen diren irizpideak ebaluazioa zuzentzeko?</i>	Normatiboa
			Kriteriala
			Kuantitatiboa
			Kualitatiboa
			Bukaerakoa / Sumatiboa
			Bitarteko ebaluazioa / Jarraitua
			Hasierakoa / Diagnostikoa

TAULA 4. Antolakuntza pedagogikoa

	DIMENTSIOAK	GALDERA ERAGILEA	ADIERAZLEAK
ANTOLAKUNTZA PEDAGOGIKOA	Akordioaren abiapuntua	<i>Nork erabakitzen ditu eskolaz kanpoko hezkuntza-irteerak eta landuko diren edukiak?</i>	Eskola barruko estamentuak
			Eskolaz kanpoko estamentuak
			Bi alorren arteko akordioa
	Proiektuaren justifikazioa	<i>Zein da proiektuaren justifikazioa?</i>	Sentsibilizazio soziala
			Harreman sozio-afektiboa
			Hurbilpen teknikoa
			Gerturatze historikoa
			Ezagutza estetiko- artistikoa
	Espazioen arteko lotura Pedagogikoa	Ba al dago espazioen artean asmo pedagogikoen jarraitasunik?	Aurretik eta osteko jarduerak ikastetxean
			Aurretik soilik, ikastetxean
			Ostean soilik, ikastetxean
			Kanpoko esperientzia bitartean, soilik

IV. ERANSKINA. Taldearen fitxa informatiboa.

TALDEAREN IZENA:	
TALDEAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA (GMAIL):	
TALDEKIDEEN IZEN-ABIZENAK	HELBIDE ELEKTRONIKOAK
1.	1.
2.	2.
3.	3.
4.	4.
ARDURAK ETA ARDURADUNAK	
Bozera mailea	
Idazkaria	
Koordinatzailea	
Materialaren arduraduna	
Zentroekin harremana	
TALDE ARAUAK	
BILTZEKO ORDUA, EGUNA ETA TOKIA	
AUKERATUTAKO KANPOKO BALIABIDEA (lehentasunaren arabera adierazi)	
1.	
2.	
3.	

V. ERANSKINA. Ebaluazio errubrika.

ALDERDI ESPEZIFIKOAK: DIDAKTIKA OROKORRA ETA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA (%20)				
Ebaluatzeko irizpideak (modulu gaitasunak)	Hobekuntza franko behar ditu (0-4.9)	Nahiko (5-6.9)	Oso ondo (7-8.9)	Bikain (9-10)
M1. Lehen Hezkuntzako 2. Zikloko irakaskuntza-ikaskuntzaren oinarrizko printzipioak aztertu eta ulertzea	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren oinarrizko printzipiorik ez da jasotzen. Ez da justifikatzen baliabideak zikloko ikasleriaren ikaskuntza moduetara eta ezagutza eraikuntzara egokitzen diren.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren oinarrizko printzipio batzuk jasotzen dira. Justifikatzen da baliabideak zikloko ikasleriaren ikaskuntza moduetara eta ezagutza eraikuntzara egokitzen diren.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren oinarrizko printzipioak jasotzen eta azaltzen dira. Justifikatzen da baliabideak zikloko ikasleriaren ikaskuntza moduetara eta ezagutza eraikuntzara egokitzen diren, horretarako baliabideen aspektu batzuk identifikatuz.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren oinarrizko printzipioak koherentzia handiz azaltzen dira. Justifikatzen da baliabideak zikloko ikasleriaren ikaskuntza moduetara eta ezagutza eraikuntzara egokitzen diren, horretarako baliabideen aspektu batzuk identifikatuz eta baliabideen inguruko jarduera zehatzak adibide gisa erabiliz.

ALDERDI ESPEZIFIKOAK: NATURAREN ZIENTZIEN, GIZARTE ZIENTZIEN ETA MATEMATIKAREN DIDAKTIKA (%30)				
<p>M4. Hezkuntza curriculumaren eta baliabide didaktikoen analisia</p>	<p>Ez dira azaltzen curriculumaren oinarrizko printzipioak, ezta nola dagoen egituratuta ere.</p> <p>Ez da ez baliabidea ezta zereginak aurkezten, edota ez da bere aukeraketa justifikatzen.</p> <p>Baliabideak analisirako gidan zehaztutakoa kontuan hartu gabe aztertzen dira (oinarrizko gaitasunak, zereginak, edukiak eta ebaluazioa).</p>	<p>Curriculumaren zeharkako gaitasunak identifikatzen dira eta baita ere diziplinako gaitasunak, helburuak, edukiak eta ebaluazioa, baina ez da zehazten nola dauden egituratuta.</p> <p>Aukeraketa justifikatzen ez bada ere, baliabideak eta zereginak aurkezten dira.</p> <p>Baliabideak analisirako gidan zehaztutako aspektuen arabera aztertzen dira (diziplina barneko oinarrizko gaitasunak, zereginak, edukiak eta ebaluazioa), justifikazio eta adibideen atala partziala bada ere.</p>	<p>Curriculumaren zeharkako gaitasunak identifikatzen dira eta baita ere diziplinako gaitasunak, helburuak, edukiak eta ebaluazioa, baina ez da sakontzen beraien arteko erlazioan.</p> <p>Baliabideak aurkezten dira eta beren aukeraketa justifikatzen da.</p> <p>Baliabideak analisirako gidan zehaztutako aspektu gehien arabera aztertzen dira (diziplina barneko oinarrizko gaitasunak, zereginak, edukiak eta ebaluazioa), adibideak eskainiz eta ondo justifikatuz.</p>	<p>Curriculumaren zeharkako gaitasunak oso modu egokian zehazten dira eta baita ere diziplinako gaitasunak, helburuak, edukiak eta ebaluazioa, beraien arteko erlazioan ere sakontuz.</p> <p>Baliabideak eta zereginak aurkezten dira eta beren aukeraketa justifikatzen da.</p> <p>Baliabideak analisirako gidan zehaztutako aspektu guztien arabera aztertzen dira (diziplina barneko oinarrizko gaitasunak, zereginak, edukiak eta ebaluazioa), adibideak eskainiz eta ondo justifikatuz.</p>

ALDERDI OROKORRAK (% 50)				
M2. Lanaren egitura eta aspektu formalen egokitasuna (%40)				
M2.1. Egituraren egokitasuna eta erreferentziak/aipuak	<p>Lanak ez du barne egiturarik erakusten, atalak ez dira modu logikoan ordenatzen. Atalen arteko koherentzia erakusten duen ildorik ez da antzematen, eta ez da atalen arteko oreka ere agertzen.</p> <p>Ez da iturri egokirik erabiltzen.</p> <p>Erabilitako aipamenak ez dira aipatzen eta ez dira jasotzen erreferentzietan.</p>	<p>Aurkibidea eskainitako egiturarekin eta atalen ordenarekin guztiz bat ez etorri arren, nahiko egituratuta dago.</p> <p>Lanaren ildoak noizbehinka galdu egiten da, baina atalen arteko oreka nahikoa agertzen da.</p> <p>Eskainitako oinarriko iturriak erabiltzen dira.</p> <p>Aipamenaren bat agertzen da eta erreferentzietan jasotzen da.</p>	<p>Aurkibidea garatuago egon zitekeen ere, lanak egitura egokia erakusten du. Atalen arteko koherentzia ahalbideratzen duen ildoak antzematen da eta atalen arteko oreka egokia da.</p> <p>Eskainitako iturriez gain, beste iturriren bat ere erabiltzen dute.</p> <p>Aipamenen bat agertzen da eta erreferentzietan jasotzen da.</p>	<p>Lanak badu egitura egokia eta jorratu beharreko aspektuen ordena logikoa erakusten duen aurkibidea.</p> <p>Oso garbi antzeman daiteke atalen arteko koherentzia ahalbideratzen duen ildoak, atal horiek oso modu orekatuan aurkeztuz.</p> <p>Eskainitako iturriez gain, beste iturri ugari ere erabiltzen dituzte.</p> <p>Aipamenak agertzen dira eta erreferentzietan modu egokian jasotzen dira.</p>
M2.2. Garapena eta ondorioak	<p>Eskainitako informazioa pobrea eta loturarik gabekoa da.</p> <p>Ez da ondoriorik eskaintzen.</p>	<p>Erredakzioa hobetu badaiteke ere, lanaren aurkezpenak aspektu formalak errespetatzen ditu. Modu orokorrean bada ere,</p>	<p>Lanaren aurkezpena eta erredakzioa egokia da.</p> <p>Ondorioak eskaintzen dira eta aspektu positibo zein</p>	<p>Lanaren aurkezpena eta erredakzioa oso egokia da.</p> <p>Aztertutako baliabide didaktikoen aspektu positiboak eta</p>

	Aurreko ataletan azpimarratutako aspektuak besterik ez dira islatzen.	ondorioak eskaintzen dira.	hobetzekoren bat azpimarratzen da.	hobetzekoei buruzko ondorioak erakusten dira, balorazio kritikoa ere eskainiz.
M3. Ikasle taldearen funtzionamendua (%10)				
M3. Ikasle taldean aktiboki parte hartzea	Eskatutako zereginak ez dira garaiz entregatzen, eta ez dago taldekideen arteko komunikaziorik, talde lan bat egoki garatzeko moduan.	Justu betetzen da eskatutako gutxieneko bertaratze portzentaia (%75-80); zenbait zeregin epez kanpo entregatzen dira eta, nahiz eta ardura jarrera adierazten duten, ez dute kide guztiek berdin egiten	Oso bertaratze portzentai altua erakusten da (%80-90); zereginak garaiz entregatzen dira eta, nahiz eta ardura jarrera erakutsi, ez dute kide guztiek berdin egiten.	Bertaratze portzentai bikaina erakusten da (%90-100), zereginak garaiz eta ardura jarrera erakusten dute amaierako txostena taldearen lanaren emaitza da.

VI. ERANSKINA: TALDEAREN 1. AUTOEBALUAZIOA (1. entregarekin batera entregatzeko)

TALDEAREN IZENA:

A. PROZESUAREN EBALUAZIO KUALITATIBOA:

Taldekide bakoitzak ze ataza egin dituen jarri behar dituzue (adibide gisa, beheko zerrenda duzue).

Taldekide bakoitzaren ekarpena ebaluatzeko erabil itzazue ondoko kategoria hauek:

B= Baxua

E = Erdizkoa

A = Altua

OA = Oso altua

1. Kanpo-baliabideari buruzko informazioa jaso.
2. Sarrera eta justifikazioa prestatzeko informazioa bildu eta aztertu.
3. Ezarritako atazetan parte hartu eta bukatu.
4. Amaierako testua gainbegiratu.

IZENA	1	2	3	4	EBALUAZIO GLOBALA

B. PROZESUAREN EBALUAZIO KUANTITATIBOA:

Taldekide bakoitzak egindako atazak zehaztu eta ondoren, portzentajeak erabiliz taldekide bakoitzaren ekarpena adierazi. Ekarpene guztion batura 100ekoa izango da.

IZENA	EKARPENA LANARI (%)
1-	
2-	
3-	
4-	

C. ANALISIA ETA HAUSNARKETA.

Ondoko taula hau bete:

Zuen jarduera kooperatiboaren hiru alderdi positibo adierazi.	Zuen jarduera kooperatiboaren hobetzeko bi alderdi adierazi.	Zuen jarduera kooperatiboa hobetzeko gehienez hiru ekintza proposatu.
1- 2- 3-	1- 2- 3-	1- 2- 3-

VII. ERANSKINA: TALDEAREN 2. AUTOEBALUAZIOA (azken entregarekin batera entregatzeko)

TALDEAREN IZENA:

A. PROZESUAREN EBALUAZIO KUALITATIBOA:

Taldekide bakoitzak ze ataza egin dituen jarri behar dituzue (adibide gisa, beheko zerrenda duzue).

Taldekide bakoitzaren ekarpena ebaluatzeko erabil itzazue ondoko kategorია hauek:

B= Baxua E = Erdizkoa A = Altua OA = Oso altua

1. Lehenengo entregatzearen zuzenketak txertatu (Sarrera eta baliabidearen deskribapena).
2. Ikasgai ezberdinei dagozkion atalak osatu.
3. Tutoreak emandako zuzenketak eta gomendioak testuan txertatu.
4. Amaierako testua gainbegiratu, zuzenketa linguistikoa barne.

IZENA	1	2	3	4	EBALUAZIO GLOBALA

B. PROZESUAREN EBALUAZIO KUANTITATIBOA:

Taldekide bakoitzak egindako atazak zehaztu eta ondoren, portzentajeak erabiliz taldekide bakoitzaren ekarpena adierazi. Ekarpene guztion batura 100ekoa izango da.

IZENA	EKARPENA LANARI (%)
1-	
2-	
3-	
4-	

C. ANALISIA ETA HAUSNARKETA.

Ondoko taula hau bete:

Gure taldearen funtzionamendurako hobetzeko proposamenak aplikatu al ditugu? Eraginkorrak izan al dira? Ez ba da aldaketarik egon, arrazoi. (Guztira gehienez orrialde 1)